

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Maiatzean eta ekainean Iruñeko Katedraleko klaustroaren zaharberritze-lanetara egingo diren bisita gidatuetarako izena emateko epea ireki da

Doako bisitak igande hauetan egingo dira: maiatzaren 6, 13, 20 eta 27an, ekainaren 3, 10, 17 eta 24an eta uztailaren 1ean

Astelehena, 2018.eko apirilak 30

Iruñeko Katedraleko klaustroa zaharberritzeko lanen inguruan otsailean, martxoan eta apirilean sortutako ikusmin handiaren harira, Kulturako Zuzendaritza Nagusiak maiatzerako eta ekainerako izena emateko epea ireki du. Zehazkiago esanda, bisitan igande hauetan egingo dira: maiatzaren 6, 13, 20 eta 27an, ekainaren 3, 10, 17 eta 24an eta uztailaren 1ean.



Hegoaldeko eta ekialdeko fatxadetan jarritako aldamiok.

Izena emateko nahiz eguna eta ordua aukeratzeko tramitea [esteka](#) honen bitartez egin behar da.

Informazio guztia [Nafarroako Ondare Historikoaren Kontserbaziorako Fundazioaren webgunean](#) eta [Kulturako Zuzendaritza Nagusiaren](#) webgunean eskura daiteke.

Bisitak doakoak dira eta ondoz ondoko hiru ordutegi hauetan egiten dira: 10etan, 11etan eta 12etan. Ordubete inguruko iraupena dute. Bisitariak 14 urtetik goitikoak izan behar dute, mugitzeko arazorik gabe, eta oinetako eroso eta lauak erabili behar dituzte, ibilbidea lanetako aldamiotan zehar egiten baita.

Bisita hauek 2017ko ekainean hasi ziren eta handik hona 1.400 pertsona inguruk gertu-gertutik ezagutu ahal izan dituzte bertan egiten ari diren lanak, parekorik ez duten aparteko begiralekuetara iristeaz gain.

Bisitan zuzenean ikus daitezke klaustroaren osagai estruktural eta apaingarriak eragiten dieten arazoak eta patologiak, baita kasu bakoitzean aplikatutako konponbideak ere. Ohiko bisitetan ezin ikus daitezkeen xehetasunez gozatzeko aukera ematen du. Gainera, lanek aurrera egin ahala, ikuspegiak berri eta interesguneak aldatuz joaten dira.

Une honetan, kanpoaldeko aldamiok hegoaldeko eta ekialdeko fatxadetan zehar hedatuta, ikuztegia erdialdeko angeluan dutela, trazerien

muturretako eskultura bikainak eta horiei dagozkien patologiak eta zaharberitze-premiak zuzenean ikusteko aukera erraztuz. Gauza bera gertatzen da multzoan dauden konplexutasun eta apaingarritasun goreneko alde hauetako osagai apaingarriekin.

2018ko lehen hiruhilekoan egindako bisitek ekialde eta hegoaldeko kanpoko aldamiok zeharkatu dituzte. Barnealdean ez da aldamiok finkorik ezarri fase honetan, eta ondorioz, oso-osorik ikus daitezke Ate Ederra eta galeria hauetako gainerako elementu eskultoriko eta piktoriko guztiak.

Zaharberitze-lanen erritmoan

Iparraldeko hegalean eta ekialdeko hegalean ipar erdialdean egiten ari den esku-hartzea bukatu ondoren, lanen azken emaitzak bistara daitezke, gainerako galerietan dauden zaharberitze-premiak baloratzeaz gain. Zaharberitze-lanak bukatuta daude jadanik klaustroa eta katedraleko tenplua lotzen dituen Babesaren atetik Barbazana kaperaren fatxadaraino.

Arkitekturaren ikuspuntutik, horma-bularrak, pinakuluak eta arkuak sendotzeko lanekin jarraitzen ari da, mendez mende aire librean eta euriaren erasopean egondako elementu hauei eragiten dieten patologien araberrako esku-hartze konplexua osatuz. Hegoaldeko eta mendebaldeko fatxadak dira Erdi Aroan apainta-ahalegin handiena bildu zutenak, eta multzoaren iparraldeko hegalean kokatuta daudenez gero, arras aldakorrek dira orain arte antzemandako kalteak: bio-narriadura eskuin-ekzer ageri da altxarretan; euri, izotz eta haizearen pean egoteak eragindako narriadura areagotu du, eta horrek guztiak bolumen-galera handiak ekarri ditu zenbait aldetako harrian. Ondorioz, hezetasunak eta aire librean egoteak eragindako kalteak askoz ere sakonagoagoak dira eta uste baino elementu gehiagori eragiten diete.

Hegoaldeko galeriaren barnealdean, gainazala garbitu ondoren, laser makina bat Ate Ederraren gaineko zikinkeria kentzen hasi da, horixe baita katedraleko klaustroan dagoen multzo eskultorik garrantzitsuenetakoa, Ama Birjinaren heriotzari buruzko ikonografia gotikoko narrazio-ziklorik aberats eta konplexuenetakoa osatzen duena.

Lankidetzaren instituzionala

Katedraleko klaustroa eraberritzeko lanak Nafarroako Gobernuak, Iruñeko eta Tuterako Artzapezpikutzak, "La Caixa" Gizarte Ekintzak eta Nafarroako Kutxa Fundazioak 2016ko maiatzaren 31n sinatu zuten lankidetzaren hitzarmenaren ondorioz mamitzen ari dira.

Akordio horretan, lanak hainbat etapatan egitea adostu zen, 2016tik 2020ra bitartean, 3.800.000 euro inguruko aurrekontuarekin, lanak ezagutzera emateko proiektua barne hartuta. Bestetik, proiektuen idazketa eta lanen zuzendaritza Kulturako Zuzendaritza Nagusiko Ondare Historikoaren Zerbitzuko teknikarien ardura izanen da.



Lanes beste ikuspegi bat, ikuztegia erdialdean duena.

Klaustro gotikoa

Katedraleko klaustro gotikoa eta alboko inguru kanonikalak Europako Erdi Aroko arkitekturaren multzo eder eta aberasgarrienetakoa dira. Oin karratukoa eta ia bi mendez eraikitakoa (1277-1472), lorategi nagusiaren inguruan altxatzen da. Alde bakoitza gabletetan amaitutako arku zorrotzekin ixten da (bi lerro zuzenek eta punta zorrotzek osatutako errematea), zutabeen txortek eutsita, eta haien traza konplikatuak bako bako bertikalki zatitzen duten mainelete mehetan eusten dira.

Barneko horma-arte bakoitza gurutze-gangekin estaltzen da gargola eta pinakuluekin amaitutako kanpoko estribuekin. Gangen klabetan urteko hilabeteak irudikatzen dira, haizeak, zenbait ibai, Testamentu Berriko eszenak eta santuak. Bestalde, kapitulek landaretzako apaingarri fin-finak dituzte eta garaiko bizimoduaren eszena asko, animaliak eta Genesia liburuko pasarteak. Horma-arte bakoitzaren hondoko hormak polikromatutako monumentu-eskulturren azal landuekin aberastuta daude bereziki edo pinturrekin

edo eskulturarekin edertasunez apaindutako hilobiak.